



AZIRKARTE GIZARTE-ZIRKUA PROIEKTUA

# AZIRKARTE GIZARTE-ZIRKUA PROIEKTUA

AZIRKARTE GIZARATERATZEKO ELKARTEA

[HTTPS://AZIRKARTE.ORG/](https://azirkarte.org/)



\* DOKUMENTUA BERRIKUSTEA: 2024KO OTSAILA



## AURKIBIDEA

1. NORTZUK GARA?

2. ELKARTEAREN HISTORIA

3. ZER NAHI DUGU?

4. ZER EGITEN DUGU?

5. ZER DA GIZARTE-ZIRKUA?

6. ZERGATIK ZIRKUA GIZATALDE HONEKIN?

7. JARDUERA EREMUAK

8. HEZKUNTZA HELBURUAK

9. MAILA ETIKOAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

10. ADMINISTRAZIO-MAILAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

11. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

12. GURE DEKALOGOIA



**AZIRKARTE**, aniztasun funtzionala duten gazteei aisialdirako aukerak emateko sortutako elkarte da. Bultzatzen dituen jarduerak, hezkuntza eta kultura mailakoak dira, eta ariketa fisikoari lotutakoak ere. Beti gazteen garapen pertsonala eta ongizatea kontuan dute.

## 1. NORTZUK GARA?

Irabazi-asmorik gabeko elkarte gara, eta ZIRKU SOZIALA aniztasun funtzionala duten pertsonen gizarteratzeko tresna moduan erabiltzen dugu.

Taldean, kirol jardueretan eta aisialdian eskarmentua dugun bost hezitzaile gaude, eta aniztasun funtzionala dugun 18 gazte inguru. Hasiera batean, ikasketek elkartu gintuzten; baina, egun, zirkuarekin lotutako jarduerak, eta horietatik sortutako aukerak batzen gaituzte.

## 2. ELKARTEAREN HISTORIA

2016-2017 ikasturtean hasi ginen Gasteizko Calasanz ikastetxean, Zereginen Ikasketa Gelaren bigarren zikloan egin genuen zirku sozialeko ikastaro batean. Ikastaroaren helburua, ikasleen garapen pertsonalean eta sozialean laguntzea zen, euren adierazpena, komunikazioa eta gizarteratzea hobetzeko. Astero egin genituen klaseetan, akrosporta, malabareak, akrobaziak eta sokekin egindako jauziak landu genituen. Lehendabiziko kurtsoa amaitzerakoan, erakustaldia egin genuen, ikasturtean egindakoa ikastetxeko kideei ikusarazteko.

2017-2018 ikasturtean, lortutako emaitza onak, ilusioa, motibazioa eta ikasleen konpromisoa ikusita, beste aurrerapauso bat ematea erabaki genuen. Ikuskizun bat sortzea erabaki genuen, gizarterari erakusteko “ezindutzat” jotako ikasleak, eurak ere, nahi duten hori guztia lortzeko gai direla.

“El sauce llorón” zen ikuskizun horren izena. Malabareak, akrobaziak eta sokekin egindako jauziak erakusten zituen lana, gure ikasleek lorezain izateko egiten duten formakuntzan oinarrituta dago. Eurek parte hartu zuten, besteak beste, eszenografia, musika eta jantziak hautatzeko prozesuetan.

“El sauce llorón”, gizartean gutako bakoitzak duen garrantziari buruzko ikuskizuna da.



[https://www.youtube.com/watch?v=vz\\_H8kw6wn8](https://www.youtube.com/watch?v=vz_H8kw6wn8)

2018 ko amaieran, Azirkarte, irabazi-asmorik gabeko elkarte sortzea erabaki genuen.

Ikasketak amaitu zituztela-eta, interesa zuten gazte batzuk klaseetara jada ezin zirela etorri jabetu ginen. Orduan, ikastetxeko formakuntzatik kanpo, astean behin eta arratsaldez beste ordubete elkartzea erabaki genuen, nahi zuen orok parte har zezan.

2020 an ikuskizun berri bat lantzen hasi ginen. “Parkeando” udarako prest eduki nahi genuen, astoekin batera egindako “Zirku-Asto-Ibilaldia” izeneko ekimen ibiltarian zehar erakusteko. “Parkeando” izena aukeratu genuen, parkeek eskaintzen dituzten aukera guztiak jorratzeko. Parkea topagune, gazteen elkargune, sorgune eta erakusleiho izan zedin.

<https://youtu.be/3LzvrazS1VA>

Testu hau idazten dugun une honetan (2024ko udaberrian), gure hirugarren ikuskizuna lantzen ari gara.

### 3. ZER NAHI DUGU?

Zirkuko jardueren bidez, gure gazteen parte-hartzea eta gizarteratzea ahalbidetuko duen gune bat eskaini nahi dugu.

Gune horrek gizarte-zirkua sustatzea nahi dugu, gizarte-zirku hori bitarteko izan dadin identitate ezberdinak gizarteratzeko, adierazteko eta elkartzeko. Gizartearen eraldaketa litzateke azken helburua, batera sortuko dituzten proiektuen azken helburua.

### 4. ZER EGITEN DUGU?

Gizarte-zirkua, inklusiorako eta hezkuntzarako tresna gisa erabiltzen dugu.

#### **Jarduera lerroak.**

---

Lau ditugu:



- **Ikasi, izateko:** Asteroko saioak, mugimendu-trebetasunak eta gizarte-trebetasunak hobetzen lagunduko duten zirku-teknikak lantzeko. Izateko, hazteko eta gozatzeko gunea.
- **Antzeztu, ikusarazteko:** Eraldaketa-prozesuak errazten lagunduko diguten ikuskizun eta tailerren plangintza eta kudeaketa.
- **Hobetzeko, prestatu:** Urtean zehar hezitzaileentzat eta gure gazteentzat berariazko prestakuntza-planak egiten ditugu.
- **Bidaiatu, partekatze:** Zirku-Asto-Ibilaldia deritzon proiektuak ematen dizkigun aukerak aprobetxatzen ditugu. Bost egun inguru irauten dituen irteera horri esker, bertoko jendea eta gure herriak ezagutzen ditugu. Horrez gain, gure herrialdetik kanpoko erakundeak bilatzen ditugu, eta, eurekin batera, zirkua gizarteratzeko bitartekoa dela adierazten dugu.

### **Egiten ditugun jardueretako batzuk:**

#### **Tailerrak**

---

Haurrentzako zirku-tailerrak eskaintzen ditugu. Ikastaro horiek gure gazteen garapen pertsonala eta soziala indartzeko estrategiaren barruan kokatuta daude. Parte hartzen duten umeei, zirkuko hainbat elementu aurkituko dituzte, eta horiek probatuko dituzte AZIRKARTEKO kideen eskutik, zirkua esperimentatzeko, jolasteko eta gozatzeko.

Tailerrek lau “txoko” dituzte, malabareak, oreka, akrobaziak (akrosport) eta sokarekin jauziak probatzeko.

Eskaintzen dugun zirku disziplina bakoitza, leku zehatz batean kokatuko da, izen eta guzti, zirkuko materialek eta azpiegiturek jolasgune dinamiko eta segurua eskain diezaguten.

Erabiltzen ditugun materialen artean, haurrek askotariko zirku materiala aurkituko dute, hala nola: malabareak egiteko mazoak, piruetak egiteko eta airera botatzeko diabolak, zirkuko uztaiak, salto egiteko sokak, ume txikientzako zangoak, haur zaharragoentzako zurezko zangoak eta zapi hegalaria edo hula hoop direlakoak, gorputzarekin dantzatzeko.

Zirku jarduera berezia ere badugu: ANIZTASUNA deitzen diogu horri. Funtsean, tailerraren ardura duten gazteek, gizarte-zirkuaren erakustaldi txikia eskaintzen dute.



Zirkuari eskainitako tarte hori, mugimendu eta giza-trebetasunez gozatzeko eta trebetasunok garatzeko une paregabea da.

## **Ikuskizunak**

---

Ikuskizunak egiten ditugu gogoratzeko herritarren parte-hartzea arteetan, giza-eskubide bat gehiago dela, aniztasun funtzionala duten pertsonentzat eta taldeentzat ere bai.

Ikuskizunok, begirada inklusibo batekin egindakoak dira, eta, ondorioz, desgaitasuna duten pertsonetarako begirada aldarazten dute. Publikoaren txalok gure artisten autoestimuan eragin positiboa dute, oso.

Azirkarteren erakustaldiak, aurreiritzirik gabe begiratzeko gonbidapen bihurtzen dira, baztertu gabe laguntzeko, era dibertigarri eta ezberdin batean zirkua imaginatu, sentitu eta disfrutatzeko. Izan ere, gizarte-zirkuan, inportanteena ez da perfekzioa, baizik eta erakustea eta partekatzea.

## **Zirku-Asto-Ibilaldia**

---

Aisialdi-aukera berritzailea da hau, eta naturan eta herriz-herri egiten dugu. Pertsonok eta astoek. Ez astoen gainean, baizik eta euren ondoan, eta euren abiaduran egindako ibilaldia da hau. Urtero, udan, kilometro asko egiten ditugu, paisaiatz eta taldeaz gozaten, norberak bere buruarekin egoteko aukerekin ere bai. Gure gazteekin kalitate handiagoko uneak partekatzeko txangoa da hau, eta, gainera, herriekin eta beste elkarte eta talde batzuekin elkarlanean aritzeko bideak zabaltzen zaizkigu.

Ibilaldi hau ongi pasatzeko gune segurua da. Parte-hartzaileak lasai daude, eta, hortaz, pertsonalki eta talde moduan hazteko aukera dute. Bisitatzen dugun herri bakoitzean, antzezpena eskaintzen dugu. Bertokoek eskuzabaltasunez hartzen gaituzte eta ikuskizunarekin hunkitu egiten dira.

Zalantzarik gabe, **Zirku-Asto-Ibilaldia, caminando con el circo y con los burros** izeneko proiektua berritzailea eta eraldatzailea da. **IKIRIKI** elkartearekin batera bultzatu genuen, eta, harrezkerotik, beste kide batzuk gehitu zaizkigu. Horra hor **Gernikako TXITA-TOKI, Menorcako ACIRKAOS eta Madrilgo CARAMPA** elkarteak.



Guztiak **FEECSE** (Federación española de escuelas de circo socio educativo)ko kideak dira. Vigoko **Fundación IGUALARTE**rekin ere harremanetan gaude.

2019an Arabako Lautadan egin genuen gure lehenengo Zirku-Asto-Ibilaldia. Araitatik Burgelura ibili ginen bost egunez, eta egun bakoitzean bisitatu genuen herrian “El sauce llorón” antzeztu genuen, eta bertan lo egitera geratu ginen.

<https://vimeo.com/664385488>

Lehendabiziko esperientzia hori hain ederra izan zenez gero, 2021eko udan Arabako Mendialdera joan ginen gauza bera egitera. Ordurako, “Parkeando”, gure bigarren ikuskizuna prest geneukan, eta hura erakutsi genuen.

<https://vimeo.com/664940141>

Bi ibilaldiotan, aipatutako Acirkaos elkarteko kideak gonbidatu genituen.

2022ko udan Arabako Errioxara joan ginen, asto eta guzti berriro. Eltziego, Laguardia eta Bilar bisitatu genituen, eta Gernikako Txitatoki Urdaibai Zirko Eskola izan zen gure gonbidatua.

<https://vimeo.com/742983106>

2023an Añanako eskualdean izan ginen, Espejotik abiatuta. Geldiuneak Gesaltza Añanan, Pobesen eta Zuhatzu Kuartangon egin genituen. Uda horretan berriro ere izan ziren gurekin Acirkaoseko eta Txitatokiko lagunak, eta Carampakoak gehitu zitzaizkigun estrainekez.

<https://vimeo.com/855416672>

2024an bosgarren edizioa izango dugu, eta Zuhatzu Kuartangotik Gopegiraino joan nahi dugu. Gure asmoa da bi herriok lotzea Izarran, Murgian eta Gopegin antzeztuz eta lo eginez. Aurten, Vigoko Igualarte Fundazioko kideak izango ditugu gonbidatu.

## 5. ZER DA GIZARTE-ZIRKUA?

Gizarte-zirkua, mundu osoan hezkuntzaren eta psikologiaren alorrean geroz eta sona gehiago duen tresna da. Bitartekotza sozial eta komunitariorako estrategia berritzailea da.

Hainbat zirku-disziplina irakatsi eta erakutsi egiten ditu: malabareak, akrobaziak, aereoak, ekilibrioak, clown-a eta abar. Egoera zaugarrian dauden gizataldeei zuzenduriko tresna da. Esaterako, bazterkerian bizitzeko arriskua duten adingabeak,



desgaitasuna duten pertsonak, indarkeria bizi izan duten emakumeak, presoak, edo eta drogen menpe bizi diren pertsonak.

Gizarte-zirkuan aritzen diren pertsonak ahaldundu egiten dira zirku mota honi esker, eta, hortaz, gizartea eraldatzeko tresna baliagarria dela ondorioztatu dezakegu. Beraz, helburua ez da malabar edo akrobazia perfektuak egitea, baizik eta pertsona bere osotasunean garatzea. Ostean ikusiko dugun moduan, gizarte-zirkuan, besteak beste, atentzioa, autoestimua, lanaren balioa, besteengan konfiantza, egoerei aurre egiteko gaitasuna eta huts egitearen onspena lantzen dira. Luis Monterok dioen moduan, **“gizarte-zirkuan, prozesua da inportanteena, ez emaitza”**.

## 6. ZERGATIK ZIRKUA GIZATALDE HONEKIN?

- ✓ Garapen pertsonal eta sozialerako gunea eskaini nahi diegulako.
- ✓ Gune hori aniztasuna adierazteko eta topatzeko bihur dadin. Eta horrela, gizarte-zirkua sustatzen joango gara.
- ✓ Egindako antzezpenei esker, gizarteak jakingo du gizarte-zirkua inkulsiorako tresna baliagarria dela.

## 7. JARDUERA EREMUAK

- ✓ Psikomotorea: oinarrizko gaitasunak, oreka, koordinazioa, gorputzaren kontrola, gorputzaren adierazpena, ...
- ✓ Kognitiboa: estrategien eta prozesuen plangintza, eta euren garapena, produktu bat landu ahal izateko.
- ✓ Giza-afektiboa: portaerei lotutako ikasketak, eta pertsonen inguruarekiko duten jarrera (taldekideekiko, hezitzaileekiko, materialekiko, guneekiko, ...).

## 8. HEZKUNTZA HELBURUAK

- ✓ **Autoestimua garapenean eragin:** bazterkerian bizi diren gizataldeekin lana egiten denean, ohikoa da euren buruan segurtasunik ez duten gazteekin topo egitea. Bada, zirku disziplinei esker, hasiera batean ezinezkoa zirudien hori lortuko dute. Lorpen bakoitza garaipen bihurtuko da, eta parte-hartzaileen konfiantza handituko da.
- ✓ **Autonomiaren eta autoerregulazioaren garapenean eragin:** ekilibrioak eta





malabareak bezalako jardueren bidez, parte-hartzaileek euren emozioak kudeatzen ikasten dute (etsipenari aurre egin, eta pazientzia). Gainera, helburu horiek lortzeko estrategiak lantzen dituzte. Horrela, hobeto ezagutuko dute euren burua.

- ✓ **Elkartasunaren garapenean eragin:** zirkuak, elkarri laguntzea eta taldean egindako lana ditu oinarri. Hortaz, jarduerak taldean egiten dira. Dударik gabe, gizarte-zirkua errespetua, elkartasuna, ardura eta enpatia bezalako balioak garatzeko tresna paregabea da.
- ✓ **Kide izateko gaitasuna bultzatu:** gure gazte askok ez dakite zer den talde baten kide izatea. Hain zuzen, taldean egiten ditugun jarduerari esker, gatazkak konpontzeko bideak lantzen ditugu, iritzi trukaketa eta taldean erabakiak hartzeko moduak ere. Azken finean, gizartearekiko lotura lantzen ari gara.
- ✓ Gure gazte askorentzat, erronka izugarria da publikoaren aurrean aritzea. Aldi berean, publikoak eurekiko duen **begirada ere aldatzen** saiatzen ari gara.
- ✓ **Arriskuak neurtzen lagundu:** zirku artista batzuek arrisku handiko ariketak egiten dituzte. Gure gazteei disziplina berriak erakusterako orduan, arauak segurtasun tresna bihurtzen dira. Jarduera hauek euren eguneroko bizitzarako garrantzitsuak izango dira, euren burua zaintzen eta arriskuez jabetzen lagunduko baitiete.

## 9. MAILA ETIKOAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

- ✓ Proiektu honetan parte-hartzen duenak, berak nahi duelako da.
- ✓ Datuen tratamendua Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera egiten dugu.
- ✓ Konfidentzialtasun egokia bermatzen eta babesten dugu.
- ✓ Jarduerari, haren arriskuei, argazkiak eta bideoak hartzeari eta abarri buruzko baimenak eskatzen eta lortzen ditugu.

## 10. ADMINISTRAZIO-MAILAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Elkartearen memoria orokorrean jasota daude kontratuak, erantzukizun zibil orokorreko eta babes espezifikoko aseguruak, fakturak eta jardueretan egiten diren zerbitzu guztiak.



## 11. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Ebaluazioa, hobetzeko bide bezala ikusten dugu. Hala ere, ez dugu amaierarako uzten, baizik eta proiektua abian denean ere egiten dugu. Gure lanaren kalitatea bermatzeko eta aldaketetara zabalik gaudela erakusteko balio digu.

Ebaluazio prozesuak, ondorengo tresnak eta parametroak erabiliko ditu:

- ✓ Jarduerak zuzenean jarraituko ditu, helburuak ondo betetzen direla ziurtatzeko.
- ✓ Autonomia ohituren garapena.
- ✓ Emozioak identifikatzeko gaitasunean hobekuntza.
- ✓ Jarrera positiboa eta besteei errespetua.
- ✓ Proiektuaren arduradunen azterketa.
- ✓ Berrikuntzaren ikuspegitik, profesionalen ongizatea, proiektua benetan berria baita.

## 12. GURE DEKALOGOA

1. Pertsona guztiak ezberdinak gara. Gutako bakoitza, bakarra eta berezia da.
2. Akatsa, ikasketaren parte da.
3. Besteak eta zure burua zaintzen ikasi. Baita besteei laguntzen eta laguntza eskatzen ikasi ere.
4. Hauetxek dira gure oinarrizko osagaiak: errespetua, indarra eta taldea.
5. Barrea eragiteko, ez dugu zertan inor umiliatu.
6. Malabareak egiteko jakin beharrekoa: huts egite bakoitza, aurrerapauso.
7. Ekilibrioak egiteko jakin beharrekoa: gure gorputza ezagutu eta kontrolatu behar dugu.
8. Akrobaziak egiteko jakin beharrekoa: gure indarguneak eta ahuleziak ezagutu behar ditugu.
9. Trukurik hoberena ez da zailena den hori, baizik eta hoberen ateratzen zaidan hori.
10. Zirkua guztiona eta guztiontzat da.